

LANGILEEN INFORMAZIO KLAUSULA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (EB 679/2016 Erregelamendua) 13. artikuluekin eta Datu Pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 2018/3 Lege Organikoaren 11.artikuluekin bat, ORERETA IKASTOLA-k honako informazio hau ematen die bere langileei euren datu pertsonalen tratamenduaren inguruan:

NOR DA ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA?

- Arduradunaren nortasuna: ORERETA IKASTOLA
- IFZ: F-20974358

ZEIN HELBURUREKIN ERABILTZEN DITUGU ZURE DATU PERTSONALAK?

Zure datu pertsonalak pertsonen kudeaketaren inguruko hainbat helbururekin erabiltzen ditugu, hala nola, nomen kudeaketa, kontratazioa, Gizarte Segurantzaren afiliazioak eta kotizazioak, formazioa, lan jardunaren kontrola, langileen ordezkariekin erlazioak, langileen aseguruaren ingurukoak, barne boletinak bidaltzea, jardunaren ebaluazioa, lan arriskuen prebentzioa, langileen inguruko zergen kudeaketa eta kudeaketa administratiboa. Era berean, zure baimena emanaz gero, langileen irudiak/ahotsa jaso eta erabiliko dira konpainiaren promozioa egiteko.

ZENBAT DENBORAN MANTENTZEN DITUGU ZURE DATU PERTSONALAK?

Emandako datu pertsonalak lan harremana dagoen bitartean eta jasoak izan ziren helburua betetzeko behar adinako denboran mantenduko dira; baita datu horien helburu eta tratamendutik eratorri litezkeen balizko ardurak zehazteko ere. Promoziorako erabilitako datuak denbora mugagabean mantenduko dira baldin eta interesdunak ez badu horiek ezabatzeke edo horien tratamendurako baimena atzera botatzen.

ZEIN DA ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO LEGITIMAZIOA?

Zure datu pertsonalen tratamendurako legeko oinarriak hauek dira:

- Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat aurrera eramateko.
- Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaizkion legezko betebeharrak.
- Interesdunaren adostasuna bere datu pertsonalak helburu jakin batekin edo hainbatekin erabiltzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da honako helburu hauetarako: prebentzio edo lan medikuntzarako, langilearen lan-gaitasuna baloratzeko, mediku diagnostikorako, osasun edo gizarte motako asistentzia edo tratamendua emateko.

ZEIN HAARTZAILEARI KOMUNIKATZEN ZAIZKIO ZURE DATU PERTSONALAK?

Zure datu pertsonalak honako hauei komunikatu ahal izango zaizkie:

- Dagokion lan administrazioa.
- Zerga administrazioa.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra.
- Banku erakundeak, ordainketak egiteko.
- Aseguru konpainiak edo aseguru artekaritzak.
- Enpresa-batzordea.
- Lan arriskuen prebentziorako kanpo-zerbitzua.
- Gizarte Segurantzaren kolaboratzaile den mutua.
- Internet eta sare sozialen hornitzaileak, eta Internet atarien eta sare sozialen erabiltzaileak. Azken honetarako zure berariazko baimena eskatuko dizugu.

ZEIN DIRA ZURE ESKUBIDEAK DATUAK EMATEN DIZKIGUZUNEAN?

Zure datu pertsonalei dagokienez, ondorengo eskubideak gauza ditzakezu:

- Datuak eskuratzeko eskubidea duzu, hau da, ORERETA IKASTOLA zure datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez baieztatzeko eskubidea duzu, baita zehatzak ez diren datuen zuzenketa eskatzeko ere.
- Jasoak izan ziren helburua betetzeko jada beharrezkoak ez diren datuak ezabatzeko eska dezakezu. Datu horiek ezabatu ezin diren kasuetan, blokeatu egingo dira.
- Zure datu pertsonalen tratamenduari aurka egin ahal izango duzu tratamendua legezko edo kontratuzko betebeharrak bat betetzeko beharrezkoa denean izan ezik.
- Zure datuen tratamendua baimendua den eta onarpenean edo kontratu baten exekuzioan oinarrituta dagoen kasuetan ere eskubidea izango duzu eman

dizkiguzun datuak modu antolatuan, ohiko erabilera eta irakurketa mekanikodun formatuan jasotzeko.

- Datuen tratamendua zure onarpenean oinarriturik dagoenean, adibidez, zure irudiaren erabilpenari dagokion tratamendua, onarpen hori kentzeko aukera izango duzu edozein momentuan, baina horrek ez dio eragingo onarpena kendu aurreko tratamenduaren zilegitasunari.

Aipaturiko edozein eskubide erabiltzeko, Ikastolako bulegora jo dezakezu eta bertan modu egokian informatuko zaituzte dituzun eskubideen eta horiek gauzatzeko bideen inguruan; idezkaritza@oreretaikastola.eus -ra idatziz ere egin dezakezu. Edozein kasutan, zure NAN-aren kopia bat atxiki beharko duzu zure nortasuna egiaztatzeko.

Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamazio bat aurkezteko eskubidea izango duzu, bereziki zure eskubideak gauzatzeko ez bazara gustura geratu. Horretarako idatzi bat bidali behar duzu posta helbide honetara: C/Jorge Juan, 6, 28001 – Madril; edo bere egoitza elektronikoaren bidez ere egin dezakezu (www.agpd.es).

KONFIDENTZIALTASUNA GORDETZEKO BETEBEHARRA

Orokorrean, langileak ikasleen, gurasoen, legezko tutoreen, ikasleen familia kideen edo Ikastolari zuzenean edo zeharka lotura duen beste pertsona baten datu pertsonaletara sarrera duenean, hauen konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra kontuan izan beharko du, eta beraz, ezingo ditu hirugarren pertsonekin zabaltu eta era egokian babestu beharko ditu.

Era berean, zehaztugabeko denboran Ikastolaren inguruko informazioak diskrezioz eta konfidentzialtasunaz gordetzera konprometitzen da, baita hauek zuzenean edo zeharka ez zabaltzera ere. Bere lan postua dela eta, konfidentziala den informazioa sarrera izandako kasuetan; denbora zehatz baterako izango dela ulertuko du, sekretua gordetzeko obligazioarekin eta horren gaineko eskubiderik izan gabe.

Informatua izan naizela adieraziz,-n, [data]

Izena:

Sinadura: